

## 91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

### 4. ORDENANTZA

#### **ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

#### **Zergapeko egintza.**

2. artikulua. Alderdi batek eskaturik, udal administrazioak edo udal agintariek beren eskumeneko agiriak emateagatik sortzen den udal jarduerak eratzen du zergapeko egintza.

#### **Ordaindu beharra.**

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako, udal administrazioak edo udal agintariek euren eskumenekoak diren edo izan behar duten edozein agiri luzatzea eskatze hutsarekin.

#### **Subjektu pasiboa.**

4. artikulua. Udal administrazioak edo udal agintariek luzatzen dituzten edo beren eskumenekoak dituzten agiriak eskatu, sorrarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira subjektu pasiboak.

#### **Tarifak.**

5. artikulua. Ordenantza honetako tarifak eranskinean agertzen dira.

#### **Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.**

6. artikulua. 1. Tasa sortutzat hartuko da agiria Udalaren Erregistro Orokorrean aurkezten denean eta udal bulegoetan ordenantzapeko eskabiderik ez agiririk ez da hartuko, ezta tramitatuko ere, aldez aurretik ez bada ordainketa egin.

2. Udal zigituaren itzulketa behar duen agiririk ez da emanen, agiria ematen duen funtzionarioak zeregin hori bete ez badu.

Aurrekariak bilatzeko eskaera orok tasa sorraraziko du, emaitza negatiboa bada ere.

7. artikulua. Udal administrazioaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorrean arduratzen duten funtzionarioek emanen dituzten udal zigitudun agiri guztiak zenbatuko dituzte eta Udal Diruzaintzan egunero diru-sarrerak, dagozkien likidazioekin egingen dituzte.

#### **Arau-hausteak eta zehapenak.**

8. artikulua. Udal administrazioaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioak eta Udal Diruzaintzaren langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan aurreikusitako eran zigortuko da.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan.

## 4. ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK 2014KO TARIFEN ERANSKINA - 248. NAON ARGITARATUA 2013KO ABENDUAREN 27A

I. epigrafea.–Ziurtagiriak.	
a) Ziurtagiriak erroldatzeaz, bizikidetasunaz, ondasunez etab.:	1,80
b) Jarduera ekonomikoen zergari buruzko ziurtagiriak:	2,35
c) Ziurtagiriak, udal agiritegian kontsulta egitea eskatzen dutenak:	6,90
II. epigrafea.–Agirien fotokopiak, partikularrek eskatuak.	
a) Din A-4 tamainako kopia bakoitzeko:	0,20
b) Din A-3 tamainako kopia bakoitzeko:	0,52
III. epigrafea.–Planoen kopiak.	
a) Din A-3 baino tamaina handiagoko kopiak:	8,00
b) Din A-3 tamainako kopiak:	0,52
c) Planoak eskaneatzea Din A-3 baino tamaina handiagoan:	3,00
d) Planoak eskaneatzea Din A-3 tamainan:	0,35
IV. epigrafea.–Txartelak tramitatzea.	
a) Arma txartel bakoitzeko.	16,15

b) Aldi baterako aparkatze mugatuko txartel edo haren kopia bakoitzeko.	6,00
V. epigrafea.–Agirien konpultsa.	
a) Trafiko istripu baten txostenaren kopia konpultsatua:	55,90
b) Konpultsak tramitatzegatik, agirien fotokopiak barne, bakoitza:	0,52
(Tramitazioa baino lehen udal zerbitzuek jatorrizkoaren fotokopia egingen dute).	
c) Bide publikoko istripu baten txostenaren kopia konpultsatua:	55,90
d) Poliziak gertakariari buruz egindako txostenaren kopia konpultsatua:	6,10
VI. epigrafea.–Langileak hartzeko deialdien tramitazioa	
a) Erdi edo goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako:	19,20
b) Gainerako lanpostuetarako:	9,60
VII. epigrafea.–Obra lizentzien, irekitzeko lizentzien edo hirigintzako bertze edozein ebazpenen kopiak ematea.	27,50
VIII. epigrafea.–Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak.	
Ale bakoitza:	11,95
IX. epigrafea.–Hirigintzako kontsultei buruzko txosten teknikoak ematea.	
Txosten bakoitzeko:	56,00

#### 4. ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK 2014KO TARIFEN ERANSKINA - 161. NAON ARGITARATUA 2014KO ABUZTUAREN 19A

Tarifen eranskineko VI. epigrafearen testua aldatu eta honela geldituko da, baina bertan agertzen diren zenbatekoak bere horretan utziko dira 2014rako:

VI. epigrafea.–Langileak hartzeko deialdien tramitazioa, bai langile finkoak bai aldi baterakoak:

a) Erdi edo goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako: 19,20.

b) Gainerako lanpostuetarako: 9,60.